



2016-02-02

Gai ordena

1. Hurrengo Martxoaren 8rako jarduerak proposatu.
2. Norberak ekar lezakeena

.....

Otsailaren 2an eta arratsaldeko zazpiretan 8 lagun elkartu gara.

1. Bileran martxoaren 8ko jarduerak adostu ditugu. Alde batetik, larunbatean, hilak 5, eta arratsaldeko zazpiretan, Zigoitia aretoan Zuloak filma ikusteko aukera izango dugu. Beste aldetik, iganderako, hilak 6, ekitaldi txiki bat antolatzea erabaki dugu (jende gehiagok ikusteko eta parte hartzeko). Bertan, taldeak sorturiko adierazpentxo bat irakurriko da. Bi tabernen inguruan mugituko gara eta Ekitaldiari jai giroa emateko, zenbait proposamen luzatzen eta adosten dira:
 - trikiak eta txistuak jartzea, musika eskolarekin kontatutako da
 - mozorrotuta joatea planteatzen da: gizonak emakume jantziekin eta emakumeak gizon jantziekin.
2. Zentroan postontzi bat jartzea erabaki da, proposamenak biltzeko. Bileretako aktak webgunean eskegitzea erabaki da. Landa inguruko nazio arteko emakumearen egunaren inguruan, urrian, berdintasun astea bat antolatzea komentatu da. Jarduera posible desberdinak aipatu dira: filmak, Zigoitiko adineko emakumeei omenaldia, ekonomia feministari buruzko hitzaldia...Aurten antolatuko diren ekintza guztiak ekonomia feministaren ingurukoak izatea interesgarria ikusten da eta gehienontzat gainera, ezezaguna. Gai honi lotuta, gazteentzat ikus-entzunezko baliabide tailer bat antolatzea aproposa ikusten da. Beldur Bariken aurkezteko edo gure aste horretan aurkezteko baina edozein kasutan, Zigoitiako emakumeek bertako lanean eta ekonomian izan duten papera azalaraziz. Azkenik, hurrengo Hamazazpi aldaizkarirako gai bat proposatzen da: nekazaritza eta abeltzain ustiattegietako jabetza tituluen inguruko informazioa, herentziak ...gehiantan gizonezkoen eskuetan.

Bukatzeko, hurrengo bilera martxoko lehen egunetan (6abaino lehen) egiteko adostu da, adierazpena sortzeko.